



Europar Batasuneko epaiek aldi baterako kontratazioa asaldatu egin dute

Duela egun gutxi Europako Justizia Auzitegiak bi epai eman zituen, epai hauek aldi bateko kontratazioa goitik behera alda dezake Espainiako erresumako legeria, batez ere kontratazio hau administrazio publikoetan ematen denean.

Epaiak azaldu aurretik zuhurtziaz hartu behar ditugu. Espainiako auzitegiek (Madrilgo Auzitegi Nagusia eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusia) Europako Auzitegiari zuzenduriko galdera aurrejudizial batzuei erantzutendiete epai hauek, beraz, ikusi behar da auzitegi hauek nola interpretatzen dituzten epai europar hauek. Behinbetiko epaiak ematen ez diren bitartean ezingo dugu jakin gai honek izango duen ibilbidea

Epaietako batek dio lege-iruzurrean kontratatuak izan diren bitarteko funtzionarioak "mugagabe ez-finko" bezala deklaratu daitezkeela lanpostua arauzko bideetik bete arte (Lan-eskaintza Publiko, Lekualdatze-lehiaketa edo lanpostuaren amortizazioa).

Beste epaiak dio Espainiako legeriak behin-behineko langileak diskriminatzen dituela antzeko lanak egiten dituzten finkoekin alderatzen baditugu. 1999/70 CE zuzentarauan oinarrituta, epe jakin baterako iraunaldiko lanari buruzkoa, erabakitzen du kontratua amaitu osteko kalte-ordaina finkoentzat eta behin-behinekoentzat berdina izan behar duela. Hau dela-eta, aldi baterako kontratuen kalte-ordaina hogeit eguneko aukera ematen da. Jakina, kontratu hauek lege-iruzurrean ematen direnean kaleratzearen kalte-ordaina bidegabeko kaleratzearena izan beharko luke. Epai honetako irizpidea erresuma mailako hainbat auzitegi-tako epaietan ezarri da dagoeneko

(Madrilgo Auzitegi Nagusia eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusia).

Aipatzen genuen zuhurtzia ahaztu gabe, gure ustetan, epai hauek prekaritatearen aurka borrokatzeko bitarteko berriekin hornitzen gaituzte. Alde berean, lanpostu huts guztiak bitarteko kontratuen bidez bete daitezten, eta honela langileei egonkortasuna eta zerbitzuari kalitatea eman, eta ez daitezela zeregin-pilaketa kontratuen bidez estali. Honez gain, epai hauek, Osakidetzak erabiltzen duen kontratazio-sistemaren aurkako kolpe bikainak dira

ESK-k urteak daramatza borrokan, Osakidetzako prekaritate-tasa kezkarria salatzen (%40aren ingurukoa). Prekaritate honek zerbitzu publikoaren kalitatearen narriadura bakarrik ekar dezake.

Arlo juridikoan, gure ustez, kontratu-desegite guztiak dagoen kalte-ordaina errekurritu beharko lirake. Honez gain, aldi baterako kontratuak (lan postu hutsak betetzen dutenak) amaitzean mugarik gabeko ez-finkoa deklaratzeari ere exijitu daitezke LEP edo lekualdatze-lehiaketaren bidez bete arte.

Arlo sindikalean premia-kotzat jotzen dugu batasun sindikala indartzea, Osakidetzak epai hauek bete dituzten eta kontratazio duin bat gauzatzeko, eta langileei egonkortasuna emanaz Osakidetzak eskaintzen duen zerbitzua hobetu eta zerbitzu publikoak sendotu.

Bi egoera hauetako bat pairatu baduzue, gure sindikatuaren deketarekin harremanetan sar zaitezke, urte bateko epea baitugu erreklamaziorik egiteko kontratua amaitzen denetik.

NORK ETA ZER ERREKLAMA DAITEKE

- Aldi baterako edo behin-behineko kontratuek, kontratua amaitzean, 20 eguneko kalte-ordainerako eskubidea dute. Langileak azken urteko kontratua erreklama dezake, estatutupeko langileek, aldiz, azken lau urtekoak.
- Hogeita lau hilabete baino iraunaldi luzeagoko zeregin-pilaketa kontratuetan, hauek amaitzean, kalte-ordaina erreklamatu ez ezik, lege-iruzurra denez, mugarik gabeko ez-finkoa deklaratzeari ere exijitu daitezke lanpostua arauzko bideetik bete arte (Lan-eskaintza Publiko, Lekualdatze-lehiaketa edo lanpostuaren amortizazioa). Kontuan hartu behar da erreklamazio-epea hilabete batekoa dela.
- Egoera hauetako batean edo antzekoan bazaude, jar zaitez harremanetan lehebailehen zure sekzio sindikalarekin.

Langileei egonkortasuna eta zerbitzuari kalitatea emango dion aldi baterako kontratazio justuago baten alde.

Hamaika behin-behineko kontratuez estalita dauden lanpostu estruktural guztiak identifikatuko dituen negoziazio baten alde.